

# Ezpalak

GORKA BEREZIARTUA

**Sorkun** abeslari errenteriarra (Gipuzkoa) Palm Desertan (AEB) ari da disko berria grabatzen Vice Presidentes taldearekin batera.


*Duna* aurreko diskoarekin pop eta drum&bass estiloetan esperimentatu ondoren, doinu zuzenagotara itzuliko dela adierazi du. Hamar kantuk osatuko dute lan berria eta Robbie Owen Waxy taldeko gitarraren jolea izango da ekoiz-

penaren arduraduna.

**Koldo Amestoy** ipuin kontalariak bloga jarri du abian. [www.koldo-amestoy.com](http://www.koldo-amestoy.com) helbidean euskarazko eta frantsesezko testuak plazaratuko ditu eguneroko gogoetak eta azken ikuskizunen inguruko informazioa emateko. Euskal Kultur Erakundearen webgunean hartu du ostaturia blogak. Atari berean beste blog bat ere abian jarri du EKEk: Le Petit Théâtre de Pain antzerki konpainiarena (<http://ptdp.eke.org>).

**Kukubiltxo** antzerki taldeak otsailaren 29an estreinatuko du *Haritzaren azalera zehatza* antzezlanaz Zornotza Aretoran (Bizkaia). Arístides Vargas argentinarren testua abiapuntutat hartuta helduentzako antzerkian murgilduko da konpainia. Saioa izeneko gazte itsuak inguratzen duen mundua ulertzeko egingo duen bidaia iniziatikoa azalduko da antzezlanean. Kukubiltxok 30 urte bete ditu aurten eta umeentzako ikuskizunak egiteari utziko ez badio ere, urrats berri bat eman du helduentzako lanak egiten hasita.

**Yosigo** argazki-lariak erakusketa jarri zuen joan den ostira-lean, hilak 1, Donostiako Ernest Lluch kultur etxean. Otsailaren 23ra bitartean ikusi ahalko dira Yosigoren paisaia biluziak Anoetako estadioaren aldamenean dagoen gunean. Besteak beste argazkiak partekatuko flickr.com webgunean paratutako irudiengatik da ezaguna Yosigo.



## Faborito argirik gabe abian da Nafarroako Bertsolari Txapelketa



ALBERTO ELIOSEGI

Xabier Silveira azken lau urteetako irabazlea ez da aurten Nafarroako Bertsolari Txapelketako mikrofonoetan jardungo; Estitxu Arozenak ere ez parte hartzea erabaki du. Bittor Elizagoien da hortaz 2008ko Nafarroako Txapelketan ariko direnen artean irabazle izatea zer den dakien bakarra. Hogeita bost bertsolari ariko dira nor baino nor otsailaren 8tik aurrera Nafarroako bertsosaren monarka berria nor den ebazteko. Azken urteetako txapelketa irekiarena izango da. Aste honetan bi kanporaketa izanen ditu txapelketak Iturenen eta Leitzaan otsailaren 8 eta 9an hurrenez hurren. Hiru finalaurreko ondoren: Iruñean (hilaren 16an), Lekunberrin (23an) eta Beran (martxoaren 1ean). Finala Elizondoko Lur dantzalekuan izango da martxoaren 15ean. Informazio gehiago [www.nafarroakotxapelketa.com](http://www.nafarroakotxapelketa.com) atarian.

## Antzerti aldizkariaren altxorra lurpetik atera da Interneti esker

**URREZKO 54 ZENBAKI**, 1932tik 1936ra bitartean argitaratuak: [www.armiarma.com](http://www.armiarma.com) webguneak sarean jarri ditu *Antzerti* aldizkariaren zenbaki guztiak. Xabier Lizardik bataiatu zuen arte eszenikoaren inguruko euskarazko aldizkari historikoa, Ixaka Lopez Mendizabalen moldiztegi muntatu zuten eta Antonio Maria Labaien izan zen gidaria, gerrak erre zuen arte. 1982an berriro argitaratu zen. Lau urte eta 29 zenbaki geroago, 1985ean isildu zen behin betiko aldizkaria. Euskal Herriko eta nazioarteko egileen antzezlanak eskaini zituen denbora horretan, idazle klasiko eta modernoak tartekatuz.

## Salmenta surrealista Sotheby's etxean

**JOANNES LEIZARRAGAK** eta André Bretonen patu bera izango dute. Urtarrilaren erdialdean Euskaltzaindiak enkantean erosi zion Sotheby's etxeari Leizarragaren Bibliaren ale original bat. Joan den astean jakin ahal izan zenez, André Bretonen *Manifestu surrealista*-ren eskuizkribua ere salgai jarriko da. Maiatzaren 20an gehien eskaintzen duenaren eskuetan izango da Bretonen testua. 24 orrialde ditu lanak eta surrealismoaren oinarriak zehaztu zituen. Adituek 300.000 eta 500.000 euro bitarteko balioa duela uste dute.

Juan Mari Torrealdai *Jakin* aldizkari zuzendari eta euskaltzainak *Berrian*: «Diotenez, liburuak irakurle asko galdu ditu hamar urte hauetan. Galdu ez dakit, baina berriak bereganatzen ez duela asmatu esango nuke nik, azken batean larriagoa dena. Esan nahi dut gazte jendea ez dela inkorporatu nahi adina liburuaren kulturara».

Itziar Mendizabal dantzariak *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian:

«Ez nintzateke ausartuko esatera [atzerrira joate] irtenbide bakarra denik, hemen ere konpainiak egon badaudelako. Gertatzen dena da Alemanian adibidez, hiri bakoitzak, handia ala txikia izan, bere antzokia duela, bere opera eta bere baleta, gobernua- ren laguntzari esker. Atzerrian hobeto ordainduta egonda eta erraztasun handiagoak edukita, aukera gehiago dago. Gainera ohikoa den ikuslegoa dago, eta dantzaren kultura handiagoa».

# Abarrak

MIKEL GARCIA

## Gezurrak baditu milaka aurpegi

*Shattered Glass*, AEB, 2003.  
Zuz: Billy Ray. Aktoreak: Hayden Christensen, Peter Sarsgaard, Chloë Sevigny. 99 m.



Kazetari izar bilakatu nahi du Stephen Glass gazteak eta dena alde du horretarako: pertsonalitate erakargarria, erredakzio kideen eta nagusien miresmena, eta denak liluratuta uzten dituen istorio aproposa topatzeko gaitasuna. Arazo txiki bat baino ez: bere erreportaje bitxi eta deigarriek errealitatea baino, fikzioa dute oinarri. Irudimen eta literatura ugarirekin berriak asmatuz gustura dabil Glass, pirata informatikoei buruzko artikulua batek beste egunkari baten susmoak pizten dituen arte.

Bitzta errealean jazotako gertakizun hau 90eko hamarkadan dago kokatua, baina sonatua izan zen duela ez hainbeste kalkatua dirudien historia: 2003an, Jayson Blair 27 urteko erredaktoreak Irakeko gerran hildakoen senitartekoen edo frankotiratzaileen elkarrizketa asmatuak publikatu zituen *The New York Times* ospetsuan. Sei hilabetetan kaleraturiko 73 erreportajeetatik gutxienez 36tan informazio faltsua aurkitu zutela onartu zuen egunkariak. Are gehiago, gogorazten ez dudan AEBetako kazetari batek Pulitzer saria eskuratu zuen guraso drogazaleekin bizi eta abstinentsia-sindromea zuen Johnny zapzi urteko mutikoaren istorioagatik. Hau ere, literatura hutsa.

Kazetaritzaren munduari eta honek hartu duen norabideari buruzko eztabaida interesgarriak mahairatzen ditu filmak: nola da posible Stephen Glassen artikuluek *The New Republic* egunkari zuhurraren zuzenketa zorrotzak –lauzpabost zuzentzailek eginak!– gainditu izana? Zergatik ez dira datuak egiaztatu? Zein da informazioa baloratzeko modua? Ondo egin al dute nagusiek Glassen istorio probokatzaileak sustatuz eta gainontzeko erredakzio kideen erretratu zintzo baina biluziagoak gutxietsiz? Askotan, egia aspergarria baino tentagarriagoa zaigu apainduraz betetako narrazio bizia, eta bere erakarpenak itsututa ez gara gauza haratago begiratzeko. Gutxienez, zenbait egunkari 'serio'ren sakralizazioa zapuzteko balio dute halako gertaerek.

Kontuak are kutsu ustelagoa hartu ohi du, lerro editorialaren eta interes desberdinen babespean, kazetariaren asmakizunak manipulazioa helburu duenean. Euskal Herriari eta euskarari lotuta kasu ugari ezagutu ditugu 2007an: *El Paísek* Bagdaden antza zuen Hernani bat deskribatu zuen –“*Un grupo de niños comienza a jugar en la plaza Berri con negras pistolas de juguete perfectamente reproducidas*”–; *El Mundoko* bi kazetarik Behobia-Donostia egin zuten... *tripiz josita?* –“*La mayoría lleva un look abertzale que nos recuerda a los miembros de la Mesa Nacional de Batasuna: melena larga, muchos pendientes, mostacho sublabial*”–; eta Keith Johnsonek *Basque inquisition: How do you say sheperd in euskera* artikulua polemikoa idatzi zuen *The Wall Street Journal*erako, artikulua surrealista, inondik inora. Objektiboa izatea ezinezkoa omen da, eta ez ei da izan behar, baina subjektibotasunak ere badu mugarik: kazetariaren begirada errealitatera egokitu beharrean, errealitatea norberaren asmoetara egokitzen denean.

www.nafarroako txapelketa.com

**NAFARROAKO  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA**

**08**

**1. kanporaketa**  
Otsailak 8, Leitza  
Aurrera Elkartea 21,30ean

**2. kanporaketa**  
Otsailak 9, Ituren  
Udaletxea, 19etan

intokazalea

Argia

ARGIA